

Jon Mantzisor Uria

Idazki hau Tablet-en apologia batekin hasten zen, teklaturik gabeko gailu horiek, irakurtzeko eta abarrerako plazerez erabiltzen ditugunak; eskua eta pantailaren arteko erlazio berriak ekarri dituztenak eta ume txikiek ere ia intuitiboki erabiltzen dituztenak. Hain gertu daude keinu horiek magoek eskuekin egiten dituztenetatik.

Dena den, hemen zentzu tradizionalen ulertzen dugun teklatuari buruz hitz egin nahi nuke.

Gailuek errealitatearekin dugun harremana baldintzatzen dutela argi dago. Sormen lanetan ere gailu baten izaera fisikoak guztiz baldintza dezake emaitza. Gogoan dut taberna batean ikusirik musika talde batek teklatu oso bitxi bat zuela: piano tekla zuri-beltzen ordezkusoinuaren baxuen botoien antzekoak. Ez dut berriz ikusi halako teklaturik, baina argi dago ergonomikoki askoz praktikoagoa dela horrelako antolaketa gure eskuentzat, idazteko teklatuaren modukoa, pianoaren teklen antolaketa baino. Pianoak eta bere arbaso klabezin eta abarrek beste arazo batzuk zituzten teklatu elektronikoko edo digitalek ez dituztenak, haiek mekanikoki hatzamarra tekla gainean jartzearen indarra mailu batek soka batzuetan kolpe bat emateraino bideratu behar zuten baskula bitartez, bidean sordinak altxatuz eta berriz ere pausatuz. Oso konplexua. Eta teklatik sokaraino lerro zuzen bat eskatzen zuena arazoa gehiago ez konplikatzen. Besteak beste, behar tekniko horiek erabakiko zuten pianoaren teklatuak duen antolaketa: banan-banan ezkerretik eskuinera lerrokatuta dauden laukizuzen meheak.

Gaizki kontatu ez badut, nire ordenagailuaren teklak 78 dira; piano batenak, 88. Nahiz eta gutxiago izan, erraz irudika ditzakegu beste hamar tekla gure ordenagailuan. Gero konparatu zer distantzia dagoen lehen teklatik azkenera batean eta bestean. Musika teklatu elektronikoko edo digitaletan ez da beharrezkoa teklak lerrokatuz egotea; idazteko teklatu baten antzekoak izan zitezkeen. Baina ez dira. Hor diseinu akastun edo ez-egokienarekin jarraitzen dugu aurrera. Kristalizatu den egitura bat, antolaketa hobea egon zitekeenean. Antolaketa horrek zenbatean eragin dio musikaren historiari, gailu horren laguntzaz sortu den musikari? Pianoan oinarririkoa musika, mendebaldeko musikaren zati oso handi bat, zenbateraino dago gure eskuak eta piano teklen antolaketaren arteko harremanak baldintzatua?

Idazteko teklatuetan ere ezaguna da erabiltzen dugun sistema, QUERTY izeneko, ez dela gaur egun izan zitekeen egokiena. Hor ere diseinu ez-egokienarekin jarraitzen dugu urteetan aurrera. Hizkiak teklatuan zein leku izango zuten erabakitzerakoan proba asko egin ziren; topatu zuten antolaketa bat zeinetan makanografoek (emakumeak gehienetan) abiadura handienera idatz zezaketen, baina garaiko idazmakina mekanikoak ez zeuden abidura hartarako prestatuta eta trabatu egiten ziren. Hori zela eta, makanografoen abiadura motelduko zuen antolaketa bat hobetsi zen, hau da, abiadura oztopatuko zuena. Gaur egun ez dugu idazmakina mekanikorik erabiltzen, baina haien herentzia mantentzen dugu eta ordenagailuen teklatuetan ere diseinu moteltzaile hori betikotu da.